

MADE IN ERMUA

ARTARRAI

MENDIZ

MENDI

15

URTETAN

ZE HAR

Artarraik bere lehenengo pausuak mendi talde bezala 1975. urtean eman ditu, Probalekuko etxe zaharrean.

Garai hartan eta bost urtetan zehar berrehun bat bazkide izan zituen taldeak, urte hauetan hainbat ekintza antolatuz eta material ugari eskuratu zuelarik. Zorritzarrez, 1979.ean etxe hartan sute bat gertatu ondoren, artxibo eta material guztia erre zen eta horren ondorioz taldea desagertu egin zen, ez bait zegoen jarraitzeko aukerarik.

1982. urtean taldea berriz sortu ondoren, Patxi tabernan lortu zituzten lokaletan, beste etapa berri bat ekin zioten. Ekinbide honek ez zuen sorte hoberik izan, 1983. urtean egon zen uriolak taldearen asmoak berriz hondatu bait zituen.

Beste lau urtetan desagertuta egon ondoren, azkenik 1987.ean, gai honetaz kezkatu-rik geunden jende taldea elkartu ginen, eta nahiz eta esperientzia haundirik izan ez, nolabait zerbait egitea erabaki genuen.

Gure asmoa haxe zen, Ermuko mendizaleak elkartu ezezik mendia kirol bezala herritarren artean ere zabaltzea, aukera berri hori eman. Ekinbide honek kultura aldetik ere aukera haundiak eman dizkigu, Euskal Herriko inguruak ikusteaz gain beste herrietako izakera ezberdina ezagutzeko.

Beste alde batetik kirol honen eginkizunaren bitartez herritarren artean harreman berriak sortu eta daudenak aberasten dira.

Asmo hauek burutzeko urtean zehar hainbat ekintza ezberdina antolatzen ditugu, jarraian adierazten dizkizuegunak:

Igandeko irteerak. Egun batetan igo ditzakegun mendiak izaten dira, Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere. Adibidez: Anboto, Gorbear, Aizkorri, Txindoki, eta abar.



Artarrai Mendi Taldearen batzarra.

Zubietako irteerak. Urtean zehar urrunago dauden mendiak ezagutzeko aukera asko izaten ez dugunez gero zubi gehienetan, Pirineo eta Picos de European mendia egiteko baliatzen gara. Horrezgain Ermutik kanpora joateko aukera merke bat eskeintzen dugu, mota guztietako jendea joan ahal dadin. Esaterako: Monte Perdido, Bisaurin, Hiru Errege Mahaia, Auñamendi, Ori, Balaitus, Midi, D'Ossean, eta abar.

Umeekin irteerak. Azken urte honetan mendizaletasuna eskolarazteko asmoz umeekin mendi irteerak antolatzen hasi gara. Nahiz eta datorren ikasturterako Ermuko eskola guztiekin irteerak egiteko asmoa eduki, oraingoz behintzat eta esperientzia piloto bezala Ikastolako umeekin bakarrik gabiltza. Euskara bultzatzea helburu bezala hartuz, Euskal Birusa, Ikastolako irakasle eta gurasoeekin elkartuz, irteera hauek euskara hutsan egitea erabaki genuen.

Kurtsiloak. Kirol honen eginkizunaren arlo ezberdinak ezagutzeko helburuaz. Orain arte hauek egin ditugu: eski nordikoa, eskalada, espeleologia, eta neguko teknikak.

Aste kulturalak. Iaz egindako aste kulturalak harrera hona izan zuen eta aurreneko egiteko asmotan gaude. Mendi kirolari buruz gai ezberdinetako filme, erakusketa eta hitzaldiak izango ditugu.

Helburu guzti hauek lortzeko ez dugu diru-laguntza haundirik jaso, izan ditugun bakkarrak, udaletxetik aste kulturala eta eski ikastaroa egiteko eta Federakundetik Ermuko mendibideak markatzeagatik izandakoak izan dira. Horregaitik gure bazkidezarekin eta ekintzetan parte hartzen dutenen poltsikotik finantziazten ditugu.

Eta bukatzeko, hemendik, Ermuko herritarrei gure ekintzetan parte hartzeko eta gure taldeari laguntza emateko deia egiten dizuegu. Zabal hartuko zaitugu.